

4.	GAIA. ARIKETA PRAKTIKOEN EBAZPENAK	1
4.1.	KUTXAKO KONTAKETA (ARKEOA)	1
4.2.	KUTXAKO KONTAKETA	3
4.3.	BANKU BERDINKATZEA	5
4.4.	BANKU BERDINKATZEA	8
4.5.	IZAKINEN BALORAZIO ARIKETA	10
4.6.	IZAKINEN SALMENTEN BANAKETA ARIKETA	13
4.7.	IZAKINAK. ERAGIKETEN BANAKETA	14
4.8.	HORNITZAILEEI BAI EZTAPENEN ARIKETA	17
4.9.	ARIKETA OSOA	19

#### 4. GAIA. ARIKETA PRAKTIKOEN EBAZPENAK

##### 4.1. KUTXAKO KONTAKETA (ARKEOA)

202x+1ko urtarrilaren 2an, kutzako kontaketa egin da BAT, SA. enpresan eta ikuskariak bere oharrak hartu ditu. Kontaketan ezagutu den saldoa eta 202xko abenduaren 31n egora balantzean enpresak jaso duena berdinak dira.

Enpresako kutxa arduradunak zerrenda eta saldoa aurkeztu du, eurotan:

Zehaztapena	Zenbatekoa
Txanponak	79,30
Billeteak	1.075,00
Fakturak (1)	2.965,71
Agiriak (2)	3.185,36
Bestelako ziurtagiriak (3)	3.050,60
<b>Guztira</b>	<b>10.355,97</b>

(1) Faktura hauek ordainduta daude, baina kontabilizatu gabe. Horregatik daude kutxan. Fakturen zehaztapena ondokoa da:

	Data	Kontzeptua	Oinarri zergagarria	BEZ %21	Guztira
1.faktura	202x/12/31	Iturgina	842,00	176,82	1.018,82
2.faktura	202x/12/28	Garbiketak	710,00	149,10	859,10
3.faktura	202x/12/30	Bulego materiala	352,00	73,92	425,92
4.faktura	202x/12/26	202xko propaganda gastuak	547,00	114,87	661,87

(2) Agirietan ondorengoa zehazten da:

Hornitzaile bati 202x/12/31n 3.185,36 eurotako aurrerakina egin zaio, %21eko BEZ barne, banku transferentzia bidez.

(3) Bestelako ziurtagiriak:

1. Abenduan 3.050,60 euro lapurtu dituzte eta denuntzia orria dago kutxan.

**Oharra:** 202xko abenduaren 31tik 202x+1eko urtarrilaren 2ra bitartean ez da kutxarekin mugimendurik egin.

#### ESKATZEN DA.

1. Kutxa kontaketa behatu eta agiriak ikuskatu.
2. Doikuntza idazpenak proposatu, akatsak esanguratsuak direla ondorioztatuz.
3. Enpresaren Kutxa saldoa zein den adierazi.

**BAT, SA. KUTXAKO KONTAKETA EBAZPENA:**

Data: 202X+1/01/02

Zehaztapena	ENPRESA		AUDITOREA		Azalpenak
	Kutxa	Kutxa	Doitu 202x	Doitu 202x+1	
Txanponak	79,30	79,30	0,00		Ados
Billeteak	1.075,00	1.075,00	0,00		Ados
Abenduko fakturak	2.965,71		-2.965,71		DK-1; 2; 3; 4 Fakturen kontabilizazioa
Agiriak	3.185,36				DK-5 Banku bidez ordaindu
Bestelako ziurtagiriak	3.050,60		-3.050,60		DK-6
<b>Guztira urtarrilak 2</b>	<b>10.355,97</b>	<b>1.154,30</b>	<b>(6.016,31)</b>	<b>0,00</b>	Berdinkatzea egiteke dago.

Doikuntza idazpenak:

Zkia.	Zehaztapena	Zor	Hartzeko
DK-1	622. Konponketa eta kontserbazioa 472. O.P. Jasandako BEZ 570. Kutxa, €	842,00 176,82	1.018,82
DK-2	622. Konponketa eta kontserbazioa 472. O.P. Jasandako BEZ 570. Kutxa, €	710,00 149,10	859,10
DK-3	629. Beste zerbitzuak (*) 472. O.P. Jasandako BEZ 570. Kutxa, €	352,00 73,92	425,92
(*) Bulego materiala izakin bezala ere tratatu daiteke: 328. / 602. /612. kontuen bitartez			
DK-4	627. Publizitatea eta propaganda 472. O.P. Jasandako BEZ 570. Kutxa	547,00 114,87	661,87
DK-5	407. Hornitzaileei aurrerakina 472. O.P. Jasandako BEZ 572. Bankuak, €	2.632,53 552,83	3.185,36
DK-6	678. Ez-ohiko gastuak 570. Kutxa, €	3.050,60	3.050,60
<b>KUTXA BERDINKATZEA: Daten arteko desberdintasunak</b> Kutxa 202X/12/31 = Kutxa 202X+1/01/02 +ORDAINKETAK – KOBURUAK = 1.154,30€			

**Balantzeko saldoaren egiaztapena:**

	KUTXA	BANKUAK
Liburuetakoa saldoa 202x/12/31n	10.355,97	
<u>Doikuntzak 1,2,3,4 eta 6</u>	<u>(6.016,31)</u>	
Saldo doituia	4.339,66	
<b><u>Saldoa auditorearen iritziz</u></b>	<b>1.154,30</b>	
Diferentzia	3.185,36	(!) Banku bidez ordaindu da hornitzaileen aurrerakina

**ONDORIOAK:** Kontaketa eta berdinkatzea egin ondoren, auditoreak egiaztatu du BAT, SA. enpresan 202xko abenduaren 31n Kutxan azaldu behar duen saldoa 1.154,30€ dela. Proposatutako doikuntza idazpenak burutuz gero, auditoria-txostenean ez da salbuespenik aipatuko diruzaintzako arloan.

#### 4.2.KUTXAKO KONTAKETA

BI, S.A. enpresaren diruzaintzako arduradunak kutxako kontaketa itxiera baino aste bete lehenago egin du eta ondorengo zehaztapena eman du, 202x/12/22ko datarekin:

PARTIDEN ZEHAZTAPENA	ZENBATEKOA
1.- Txanponak eta billeteak. Ikus 1. oharra	1.975 €
2.- Garraio elementuen 202x+1 ekitaldiko aseguruaren ordainketa ziurtagiria abenduaren bukaeran.	1.200 €
3.- 202xko abenduan langileei urtarrileko nominaren kontura emandako aurrerakinaren ziurtagiria.	875 €
<b>KUTXAN GUZTIRA</b>	<b>4.050 €</b>

#### Informazio osagarria:

1. oharra. 202x/12/22an kontatutako txanponak eta billeteak:

Moneta	Unitate kopurua	Guztira
10 zentimo	50	5 euro
20 zentimo	100	20 euro
50 zentimo	100	50 euro
1 euro	300	300 euro
2 euro	100	200 euro
20 euroko billetea	20	400 euro
100 euroko billetea	100	1.000 euro

2. oharra. 202x/12/22 eta 202x/12/31 artean eskudiruz eragiketa bakarra burutu da: 400 euro ordaindu ditu enpresak langileentzat erositako loteria dela eta. Hala ere balantzean kutxaren saldoa 4.050€ azaltzen da.

#### ESKATZEN DA:

- 1.- Kutxako saldoa egiaztatu 202x/12/31n, eta behar diren azalpenak eman.
- 2.- Doikuntza eta birsailkapen guztiak adierazi, errore guztiak garrantzitsuak direla ondorioztatuz.

#### BI, SA. KUTXAKO KONTAKETA EBAZPENA:

Data: 202x/12/22	ENPRESA	AUDITOREA			Azalpenak
	Kutxa	Kutxa	Doitu 202x	Doitu 202x+1	
Zehaztapena	Kutxa	Kutxa	Doitu 202x	Doitu 202x+1	
Txanponak eta billeteak	1.975,00	10.975,00	9.000,00		Billeteak gaizki kontatu edo biderkatu ditu (DK-1)
202x+1eko asegurua	1.200,00		-1.200,00		(DK-2) Aurrez ordaindu
Nomina aurrerakina	875,00		-875,00		(DK-3) Aurrerakina
<b>Guztira abenduak 22</b>	<b>4.050,00</b>	<b>10.975,00</b>	<b>6.925,00</b>	<b>0</b>	Berdinkatzea egiteke dago.

Doikuntza idazpenak:

Zkia.	Zehaztapena	Zor	Hartzeko
DK-1	570. Kutxa, € 759. Kudeaketa sarrerak	9.000,00	9.000,00
DK-2	480. Gastu aurreratuak 570. Kutxa, €	1.200,00	1.200,00
DK-3	460. Langileei aurrerakina 570. Kutxa, €	875,00	875,00

**KUTXA BERDINKATZEA: Daten arteko desberdintasunak**

Kutxa 202x/12/31 = Kutxa 202x/12/22 - ORDAINKETAK + KOBRUAK

..... = 10.975,00 - 400,00 + 0 = **10.575,00**

Oharra: ordainketa 202x ekitaldiko eragiketa da. Badirudi enpresak ez duela kontabilizatu, arkeoko eta balantzeko saldoa berdinak direlako.

DK-4	678. Ez-ohiko gastuak 570. Kutxa, €	400	400
------	--	-----	-----

**Balantzeko saldoaren egiaztapena:**

Liburuetako saldoa 202x/12/31n	4.050,00	(ikus 2. oharra)
<u>+/-Doikuntzak (1,2,3,4)</u>	<u>6.525,00</u>	(arkeoko doikuntzak + berdinkatzea)
Saldo doitua 202x/12/31	10.575,00	
<b><u>Saldoa auditorearen iritziz</u></b>	<b>10.575,00</b>	(ikus berdinkatzea)

**ONDORIOAK:** Kontaketa eta berdinkatzea egin ondoren, auditoreak egiaztatu du BI, SA. enpresan 202xko abenduaren 31n Kutxan azaldu behar duen saldoa 10.575,00€ dela.

Proposatutako doikuntza idazpenak burutuz gero, auditoria-txostenean ez du salbuespenik aipatuko diruzaintzako arloan

### 4.3. BANKU BERDINKATZEA

ZIKUTA, S.A. erakundearen ikuskaritza egitean, 202xko abenduaren 31n, enpresak ondorengo BANKU BERDINKATZEA aurkeztu du, auditoreak egiaztatu behar duena.

Enp data	Bko data	Saldoa bankuak (laburpenean)		19.632,00	doikuntza
		<b>+ Enpresa zordunketa, Bankuak abonatu gabe</b> Enpresak luzatutako txekueak, bankuak ordaindu gabe (*) Enpresak emandako banku-txekea, 340€tan kontabilizatua, baina bankuak ordaindutako zenbatekoa 403€ (zenbateko zuzena) <b>GUZTIRA</b>	2.267,00  63,00	2.330,00	
		<b>+ Banku zordunketa, Enpresak abonatu gabe</b> Bankuak abonatu duen sarrera, baina enpresak kontabilizatu gabe <b>GUZTIRA</b>	400,00	400,00	
		<b>- Enpresa abonauk, Bankuak zordundu gabe</b> Abenduan kobratutako eskudirua, bankuetan kontabilizatu duena enpresak, baina bankura eraman ez duena <b>GUZTIRA</b>	- 2.660,00	-2.660,00	
		<b>- Bankuak abonatu, Enpresak zordundu gabe</b> Abenduko banku zerbitzuengatik bankuko kargua Bezeroaren itzulitako txekua, enpresak kontabilizatu gabea <b>GUZTIRA</b>	-6,00 -200,00	-206,00	
		Lokalizatu gabeko diferentzia <b>Saldoa enpresa</b>		19.496,00 198,00 19.694,00	

(\*) Enpresak luzatu dituen txekueak hauek dira:

Zenbakia	Zenbatekoa
472	1.230
473	507
474	250
475	480
	<b>2.467</b>

#### ESKATZEN DA.

1. Banku berdinkatzea (kontziliazioa) prestatu.
2. Doikuntza idazpenak proposatu.
3. Enpresaren Banku saldoa zein den adierazi.

**ZIKUTA, S.A. BANKU BERDINKATZEAREN EBAZPENA**

Enp data	Bko data	Saldoa bankuak (laburpena)		19.632,00	doikuntza
		<b>+ Enpresa kargua (zordunketa), Bankuak abonatu gabe</b>			
		Enpresak bankura eraman ez duen eskudirua	2.660,00		(4)
		<b>GUZTIRA</b>		2.660,00	
		<b>+ Banku kargua (zordunketa), Enpresak abonatu gabe</b>			
	abendua	Txeke diferentzia	63,00		(2)
urtarrila	abendua	Banku zerbitzuak	6,00		(5)
	abendua	Abenduan itzulitako txekea	200,00		(6)
		<b>GUZTIRA</b>		269,00	
		<b>- Enpresa abonatuak, Bankuak kargatu (zordundu) gabe</b>			
abendua		Zirkulazioan txekeak	-2.467,00		(1) EA
		<b>GUZTIRA</b>		-2.467,00	
		<b>- Bankuak abonatu, Enpresak kargatu (zordundu) gabe</b>			
urtarrila	abendua	Banku sarrera	-400,00		(3)
		<b>GUZTIRA</b>		-400,00	
		<b>Saldoa enpresa</b>		<b>19.694,00</b>	

## (1) ENPRESAK EGIN DU:

Zkia.	Zehaztapena	Zor	Hartzeko
Dk-1 xxx		2.467,00	
	(572) Banku eta kreditu erakundeak, €		2.467,00 (*)

(\*) EA enpresak egin duen kontziliazioan. Baina idazpenenean datu zuzena jarri badu.

ENPRESAK EGIN BEHAR ZUEN, bankutik dirua kendu arte kontu berezi bat erabili:

Zkia.	Zehaztapena	Zor	Hartzeko
Dk-1 xxx		2.467,00	
	(57XXX) Igorritako txekeak kobratu gabeak		2.467,00

**DOI KUNTZAK**

Dk-1 xxx			
	(572) Banku eta kreditu erakundeak, €	2.467,00	
	Ad.(578) Igorritako txekeak kobratu gabeak		2.467,00
Dk-2 xxx		63,00	
	(572) Banku eta kreditu erakundeak, €		63,00
Dk-3 (572) Banku eta kreditu erakundeak, €		400,00	
	(76) / xxx		400,00
Dk-4 (570) Kutxa, €		2.660,00	
	(572) Banku eta kreditu erakundeak, €		2.660,00
Dk-5 (62) Banku zerbitzuak		6,00	
	(572) Banku eta kreditu erakundeak, €		6,00
Dk-6 (430) Bezeroak		200,00	
	(572) Banku eta kreditu erakundeak, €		200,00

EGIAZTAPENA	(572) BANKUAK	(578)IGORRITAKO KOBRAZKEKE TXEKEAK (A-)
Balantzeko saldoa	19.694,00	0,00
Doikuntza (1),(2),(3) (4) (5) (6)	-62,00	2.467,00
<b>Saldo doitua= auditorearen iritziz saldoa</b>	<b><u>19.632,00</u></b>	<b><u>2.467,00</u></b>

### ONDORIOAK:

Banku berdinkatzea egin ondoren, auditoreak egiaztatu du ZIKUTA, S.A. enpresan 202xko abenduaren 31n Bankuan azaldu behar duen saldoa 19.632,00€ dela, baina ordainketa txekeak zirkulazioan daudela kobratzeko 2.467,00€. Diruzaintzako zenbateko garbia 17.165,00€ da.

Proposatutako doikuntza idazpenak burutuz gero, auditoria-txostenean ez du salbuespenik aipatuko diruzaintzako arloan.

**4.4.BANKU BERDINKATZEA**

LATO, S.A. erakundea ikuskatzeko izendatu zaituzte, 202x/12/31n itxiera duena. Egoera balantzean diruzaintzako saldo hauek adierazi ditu:

Bankuak 9.100 euro Kutxa, € 4.050 euro

Elkartearen ikuskaritza egiterakoan 202xko abenduaren 31n, enpresak "Banku" kontuetan 9.100€ko saldoa adierazi du. Data horretan jaso da bankuaren laburpena eta enpresaren alde 6.800€ adierazten ditu.

Abendu eta urtarrileko eragiketak eta bankuaren baieztapen (zirkularizazio) gutunen erantzunak aztertu ondoren, informazio hau eskuratu ahal izan da:

Abendu bukaeran Bankura deskontatzera bidali diren merkataritza efektuak, enpresak abenduan kontabilizatu ditu eta bankuak urtarrilean.	3.500
Abenduko banku zerbitzuengatik bankuak zordundu duen zenbatekoa, enpresak urtarrilean kontabilizatu du.	200
Banku transferentzia bidez abenduan bezeroak egindako ordainketa enpresak urtarrilean kontabilizatu du.	1.100
Zirkulazioan dauden taloiak (enpresak abenduan luzatu eta kontabilizatu dituenak eta bankuak oraindik ordaindu ez dituenak)	1.300
Abenduan Bankuak zordundutako maileguengatik interesak, enpresak urtarrilean kontabilizatu ditu.	1.000

Eskatzen da:

1. Banku berdinkatzea (kontziliazioa) prestatu.
2. Ekitaldi itxieran enpresak egin beharreko zuzenketak adierazi.
3. Orokorki Onartutako Kontabilitate Printzipioen arabera enpresak "Banku" kontuan adierazi beharreko saldoa kalkulatu.

**LATO, S.A. BANKU BERDINKATZE EBAZPENA:**

LATO,SA		Saldoa bankua (laburpena)		6.800,00	doitu
Enp. data	Bku data				
abendua	urt.	+ Enpresa kargua, bankuak abonatu gabe Bankura bidalitako efektuak deskontatzera GUZTIRA	3.500,00	3.500,00	ondo
urt.	ab.	+ Banku kargua, enpresak abonatu gabe Banku komisioak	200,00		(1)
urt.	ab.	Mailegu interesak GUZTIRA	1.000,00	1.200,00	(3)
ab.		- Enpresa abonua, bankuak kargatu gabe Zirkulazioan taloiak GUZTIRA	-1.300,00	-1.300,00	ondo
	ab.	- Banku abonua, enpresak kargatu gabe Bezero transferentzia abenduan GUZTIRA	-1.100,00	-1.100,00	(2)
		Saldoa enpresa		9.100,00	



## DOIKUNTZA IDAZPENAK

## ZOR HARTZEKO

Dk-1	(626) Banku zerbitzuak eta antzekoak (572) Banku eta kreditu erakundeak, €	200,00	200,00
Dk-2	(572) Banku eta kreditu erakundeak, € (430) Bezeroak	1.100,00	1.100,00
Dk-3	(662) Zorren interesak (572) Banku eta kreditu erakundeak, €	1.000,00	1.000,00

## BUKAERAKO EGIAZTAPENA

BALANTZEA	9.100,00
Doikuntzak (1),(2),(3)	-100,00
<b>SALDO DOITUA= AUDITORE SALDOA</b>	<b>9.000,00</b>

**ONDORIOAK:**

Banku berdinkatzea egin ondoren, auditoreak egiaztatu du LATO, S.A. enpresan 202xko abenduaren 31n Bankuan azaldu behar duen saldoa 9.000€ dela.

Enpresak auditoreak proposatutako doikuntza idazpenak burutuz gero, auditoria-txostenean ez du salbuespenik aipatuko diruzaintzako arloan.

#### 4.5. IZAKINEN BALORAZIO ARIKETA

HIRU SA. enpresaren Balantzea 202x-1ko abenduaren 31n ondorengo saldoez osatua dago:

Kapitala	105.000	Bezeroak	29.000
Ordenagailu bat	10.200	Erreserba legala	25.000
Bankuak	25.950	Salgaiak (8.000 u, 7 €/u)	56.000
Hornitzaileak	2.000	Gizarte Segurantzza hartzekoduna.	1.150
Epe luzeko hartzekoak	24.000	Kreditu erakundeekin e/luze zorrak	12.000

Izakinei dagokienez ondorengo eragiketak burutu dira 202x ekitaldian:

- 202x-02-15:** ALVAREZ S.L. hornitzaileari 2.000 unitateko salgaien erosketa, kredituz, 12€/u prezioan. Fakturan ondorengo deskontuak eman dira: erosketa bolumenagatik 3.000€ eta promozio berezi batengatik 3.000€. Garraio gastuak 1.500 €takoak dira eroslearen kargu, baino hasieran saltzaileak ordaintzen ditu.
- 202x-03-15:** MASTER S.L. enpresari 6.000 unitate saltzen dizkio kredituz, 20€/u prezioan, bolumenagatik 2€/unitateko deskontu bat eskainiz. Garraio gastuak 300€takoak dira eta eroslearen kargura doaz, eta aseguru bat kontratatu da 500€tako saltzailearen kargu doana eta ordaintzeke uzten dena.
- 202x-03-17:** MASTER S.L. bezeroak 2.000 unitate itzultzen dituzte, 18€/u., euren eskaerarekin bat etzetzorrelako. Garraio gastuak 80€ saltzailearen kargura, banku transferentzia bidez ordaintzen direnak.
- 202x-07-15:** Berriro ALVAREZ S.L. enpresari erosten dio, 4.000 unitate 10 €/u. Bolumenagatik 2.000€ko deskontu bat eman dute. Garraio gastuak 100€takoak saltzailearen kargura doaz eta berak ordaintzen ditu.

Enpresaren arabera ekitaldi itxierako salgaien balorazioa 83.300€ da.

#### Oharrak:

- Urte bukaerako izakinen zenbatekoa kalkulatzeko Batz besteko Prezio Haztatu (BPH) sistema erabiltzen du enpresak.
- 202x-12-30ean inbentario fisikoa egin da eta 9.000 unitate kontatu dira, hau da, 1.000 unitate salgai desagertu dira biltegitik.

**ESKATZEN DA:** IZAKINEN SALDOA EGIAZTATU.

**IZAKINEN BALORAZIO EBAZPENA:**

Data: 202x/12/31	ENPRESA			AUDITOREA			Diferentzia	Azalpenak
Zehaztapena	Unitateak	kostua	guztira	unitatea	kostua	guztira		
Salgaiak	10.000	8,33	<b>83.300,00</b>	9.000	8,33	<b>74.970,00</b>	<b>-8.330,00</b>	(1) Inbentarioan 1.000 unitate falta direla ikusi da, galdutzat ematen dira.

## BILTEGIA

Data	Kontzeptua	SARRERA			IRTEERAK			IZAKINAK		
		Unitate	Prezioa	Zenbatekoa	Unitate	Prezioa	Zenbatekoa	Unitate	Prezioa	Zenbatekoa
Urtarrilak 1	Hasierako izakinak	8.000	7,00	56.000,00				8.000	7,00	56.000,00
Otsailak 15	Erosketa	2.000	9,75 (1)	19.500,00				10.000	7,55(2)	75.500,00
Martxoak 15	Salmenta				6.000	7,55	45.300,00	4.000	7,55	30.200,00
Martxoak 17	Salmenta itzulketa	2.000	7,55 (3*)	15.100,00				6.000	7,55	45.300,00
Uztailak 15	Erosketa	4.000	9,50 (4)	38.000,00				10.000	8,33 (5)	<b>83.300,00</b>
Abenduak 31	Galdu				1.000	8,33	8.330,00	9.000	8,33	<b>74.970,00</b>

(1) Otsaileko erosketa kostua = (2.000\*12)-(3.000 bolumen deskontua)-(3.000 promozio deskontua)+(1.500 garraioa)= 19.500 € (9,75€/u).

(2) BPH = ((8.000\*7,00)+(2.000\*9,75)) / 10.000 = 7,55€/u.

(3) Itzulketa: saldutakoaren BPHan, garraioa erantsi gabe. (\*) Egoera txarrean baldin badaude agian bajaran eman daitezke. Suposatuko dugu erabilgarri daudela, nahiz etziren eroslearen gustuko.

(4) Erosketa = (4.000\*10) - 2.000 deskontua = 38.000 € (9,50€/u.)

(5) BPH = ((6.000\*7,55) + (4.000\*9,50)) / 10.000 = 8,33€/u.

Doikuntza idazpenak

Zkia.	Zehaztapena	Zor	Hartzeko
1	610. Salgai izakinen aldaketa	8.330,00	
	300. Salgaiak		8.330,00

## EGIAZTAPENA:

Balantzeko saldoa 2013/12/31n	83.300,00
<u>Doikuntzak</u>	<u>-8.330,00</u>
Saldo doitua	74.970,00
<b><u>Saldoa auditorearen iritziz</u></b>	<b><u>74.970,00</u></b>
Diferentzia	0,00

**ONDORIOAK:** Biltegiko agirien azterketa eta inbentario fisikoa egin ondoren, auditoreak egiaztatu du HIRU, SA. enpresan 202xko abenduaren 31n Salgaien saldoa 74.970,00€ dela.

Enpresak auditoreak proposatutako doikuntza idazpena burutuz gero, auditoria-txostenean ez du salbuespenik aipatuko izakinen arloan

#### 4.6. IZAKINEN SALMENTEN BANAKETA ARIKETA

202x ekitaldian LAU, SA. enpresaren ikuskaritzan diharduzu. Salmenten banaketa egiteko ekitaldi itxiera aurreko eta ondorengo albaranak, fakturak eta biltegi mugimenduak aztertu dituzu. Bukarako izakinak inbentario fisikoa eginez ezagutzen dira. Eta ondorengoaz ohartu zara:

- 202x ekitaldian kontabilizatutako 350 €tako salmenta, izatez bezeroaren aurrerakina dela. Ez da salgaien mugimendu fisikorik eman biltegian.
- 202x+1 ekitaldian kontabilizatutako 4.000 €tako salmenta, 202x ekitaldiko abenduaren 22an biltegitik ateratako salgaiengatik da (Salmenta irizpidea: jatorria).
- 202x ekitaldian kontabilizatutako 2.400 €tako salmenta 202x ekitaldiko abenduaren 28an biltegitik ateratako salgaiena da (1.700 €tako kostua dutena). Bezeroari urtarrilaren 14an iritsi zaizkio, eta kontratuaren arabera data hau kontsideratzen da salmenta data, bitarteko gastu eta galerak enpresaren kargura izanik (Salmenta irizpidea: helmuga).

ESKATZEN DA: 202x ekitaldian beharrezko idazpenak proposatu. BEZ %21.

SALMENTAK					AZALPENAK
Eragiketa	ENPRESA	AUDITOREA	SALMENTA	INBENTARIOA	
a)	350,00	-	(350,00)	-	(Dk-1) Bezeroa aurrerakina
b)	-	4.000,00	4.000,00	-	(Dk-2) Ekitaldiko salmenta
c)	2.400	-	(2.400,00)	1.700,00	(Dk-3) 202x+1ko salmenta

Doikuntza idazpen proposamena:

Zkia.	Zehaztapena	Zor	Hartzeko
Dk-1	700. Salgai salmenta 438. Bezeroek emandako aurrerakina	350,00	350,00
Dk-2	430. Bezeroak 700. Salgai salmenta 477. O.P. jasanarazitako BEZ	4.840,00	4.000,00 840,00
Dk-3	700. Salgai salmenta 477. O.P. jasanarazitako BEZ 430. Bezeroak	2.400,00 504,00	2.904,00
	300. Salgaiak 610. Salgai izakinen aldaketa	1.700,00	1.700,00

**ONDORIOAK:** Salmenta agirien azterketa eta inbentario fisikoa kontuan hartuta, auditoreak proposatutako doikuntza idazpenak burutuz gero, auditoreak ez du salbuespenik aipatuko izakinen arloan.

#### 4.7. IZAKINAK. ERAGIKETEN BANAKETA

PREZIO, SA elkarteak segurtasun kutxak salerosten ditu. X1 ekitaldi hasierako izakinak 5.000 unitate dira 50€/unitateko kostuan balioztatuak, auditorea ados egonik balorazio honetan.

Ekitaldian zehar 20.000 unitate erosi dira denak 62,5€/unitateko prezioan.

Salmenta bakarrak abenduan egin dira eta 1.000.000€tan kontabilizatu dira saldutako 10.000 segurtasun kutxak.

Erosketen eta salmenten banaketa egiaztatzeko ekitaldi itxiera aurreko eta ondorengo eragiketak aztertu behar dira, albaranak, fakturak eta biltegiko mugimenduak aztertuz. Informazio hau lortu duzu:

- Erosketak behar bezala kontabilizatuta daude.
- Salmentak 20X1ko abenduaren 21ean biltegitik atera ziren izakinei dagokie. Bezeroak X2ko urtarrilaren 4an jaso ditu izakinak eta salmenta kontratuan hitzartu denez salmentaren gauzapena orduantxe ematen da, bezeroak jasotzean, aurrez eman diren garraio eta seguru gastuak enpresaren kargura izan direlarik.
- Oharrak:
  - i. Enpresak batz besteko prezio haztatuaren metodoa erabili du bukaerako izakinak balioztatzeke.
  - ii. Bukaerako izakinen unitateak ezagutzeko enpresak inbentario fisikoa erabili du.

**ESKATZEN DA:** 20x1 ekitaldian izakinei buruzko eragiketak behar bezala jasotzeko egin beharreko zuzenketak adierazi, eta bukaerako izakinen saldoa kalkulatu.

Data:

20X1/12/31

Zehaztapena	ENPRESA			AUDITOREA			Diferentzia	Azalpenak
	Unitateak	kostua	guztira	unitatea	kostua	guztira		
Salgaiak	15.000,00	60,00	<b>900.000,00</b>	25.000,00	60,00	<b>1.500.000,00</b>	<b>600.000,00</b>	
<b>Guztira</b>								

Data	Kontzeptua	SARRERA			IRTEERAK			IZAKINAK		
		Unitate	Prezioa	Zenbatekoa	Unitate	Prezioa	Zenbatekoa	Unitate	Prezioa	Zenbatekoa
X1	Hasierako izakinak	5.000	50,00	250.000,00				5.000	50,00	250.000,00
	Erosketa	20.000	62,50	1.250.000,00				25.000	60,00	<b>1.500.000,00</b>
	Salmenta				10.000	60,00	600.000,00	15.000	60,00	900.000,00

## EROSKETEN BANAKETA

Zehaztapena	ENPRESA	AUDITOREA	Diferentziak		AZALPENAK
			EROSKETA	INBENTARIOA	
Erosketa		0,00	<b>0,00</b>	<b>0,00</b>	Ados dago, ondo dago.
<b>Guztira</b>					

## SALMENTEN BANAKETA

Zehaztapena	ENPRESA	AUDITOREA	Diferentziak		AZALPENAK
			SALMENTA	INBENTARIOA	
Salmenta	1.000.000,00	0,00	<b>-1.000.000,00</b>	<b>600.000,00</b>	(1) Salmenta X1 ekitaldikoa da irizpidearen arabera (2) Izakinak biltegian ez daudenez inbentario egitean, kontatutakoari erantsi behar zaizkio kostu prezioan (BPH)
<b>Guztira</b>					

Doikuntza idazpenak:

Zkia.	Zehaztapena	Zor	Hartzeko
1	700. Salgai salmenta 477. O.P. jasanarazitako BEZ 430. Bezeroak	1.000.000,00 210.000,00	1.210.000,00
2	300. Salgaiak 610. Salgai izakinen aldaketa	600.000,00	600.000,00

<b>EGIAZTAPENA:</b>	SALGAIK
Balantzeko saldoa 20x1/12/31n	900.000,00
<u>Doikuntzak</u>	<u>600.000,00</u>
Saldo doitua	1.500.000,00
<u>Saldoa auditorearen iritziz</u>	<u>1.500.000,00</u>
Diferentzia	0,00

#### ONDORIOAK:

Segurtasun kutxen erosketa eta salmenten azterketa egin ondoren, hau da eragiketen banaketa proba, auditoreak egiaztatu du PREZIO,S.A. enpresan 20X1ko abenduaren 31n Salgaien saldoa 1.500.000€ dela.

Enpresak auditoreak proposatutako doikuntza idazpena burutuz gero, auditoria-txostenean ez du salbuespenik aipatuko izakinen arloan.



#### 4.8.HORNITZAILEEI BAIEZTAPENEN ARIKETA

BOS, S.A. enpresak papergintza artikuluen salerosketa jarduera du. Erosketak eta ordaintzeko kontuen eremuak auditatu behar ditugu. 202x/12/31 data duen ekitaldian honako informazioa jaso dugu:

Kontzeptua	Zor	Hartzeko	Saldoa
(400.1) Baga, S.A.	10.000	16.000	-6.000
(400.2) Biga, S.A.	105.500	125.500	-20.000
(400.3) Higa, S.A.	9.400	19.750	-10.350
<b>GUZTIRA HORNITZAILEAK</b>			<b>-36.350</b>

**Oharra:** saldoaren ikur negatiboak hartzekoduna dela adierazten du.

Aurreko saldoak aztertu ondoren ondorengo informazioa lortu dugu hornitzaileekin egindako baieztapen zuzenen ondorioz:

- Baga, SA.k erantzun du 202x/12/31n BOS, S.A. enpresak 13.400€ zor dizkiola. Auditoreak egiaztatu ahal izan du 202x/12/29an enpresak bidali zuela 7.400€ko zenbatekodun txekoa zorraren zatia ordaintzeko, beraz diferentziaren arrazoia auditoria datan hornitzaileak oraindik txekoa kobratu ez izana dela.
- Biga, SA.k baieztatu du bere erregistroen arabera BOS, S.A.k zor dion zenbatekoa 15.200€koa dela. Diferentziaren arrazoia hornitzaileak 202x/12/27 datan emandako bolumenagatiko deskontuan egon daiteke, izan ere enpresak kontabilizatu gabe dauka.
- Higa, SA.k erantzun du ekitaldi itxieran BOS, S.A. enpresak zor diona 12.350€koa dela, adieraziz enpresak emandako saldoaren diferentzia azkeneko fakturaren zenbatekoan dagoela. Higa, S.A. hornitzaileak azkeneko entrega 202x/12/29an bidali omen dio eta enpresak ez ditu oraindik jaso, ezta 2.000€ko (%21 BEZ barne) erosketa faktura. Hala ere, BOS, S.A.k onartu du eskaera abenduan egin zuela eta erosketa irizpidea "jatorria" dela, hau da, hornitzailearen bidalketa data.
- Enpresaren hasierako izakinek 22.000€ko kostua dute eta ekitaldia amaitu ondoren biltegian zenbatu dituen izakinak kontuan hartuta 29.500€ko bukaerako izakinak erregistratu ditu.

ESKATZEN DA. Hau guztia kontuan izanik, auditorearen lan paperak prestatu enpresari doikuntza eta birsailkapen proposamenak egin ahal izateko.

**EBAZPENA:**

**Oharra:** aurrez aipatu moduan ikur negatiboak kontuaren saldoa hartzekoduna dela adierazi nahi du. Hala ere, nahi izanez gero, ebazpenerako lan orrian hornitzaileen ohiko saldo hartzekoduna ikur positiboan jar daiteke, lana errazteko.

Kontua	Zehaztapena	ENPRESA	AUDITOREA	DOIKUNTZA	AZALPENAK
400.01	Baga hornitzailea	(6.000,00)	(6.000,00)	-	Ados enpresaren saldoarekin
400.02	Biga hornitzailea	(20.000,00)	(15.200,00)	4.800,00	(Dk-1) Bolumen deskontua falta da
400.03	Higa hornitzailea	(10.350,00)	(12.350,00)	(2.000,00)	(Dk-2) Erosketa falta da eta (Dk-3) biltegian doikuntza egin behar da.

Doikuntza idazpen proposamena:

	Zkia.	Zehaztapena	Zor	Hartzeko
	Dk-1	400.02 Hornitzailea 609. Erosketen gaineko "rappelak" 472. O.P. jasandako BEZ	4.800,00	3.966,94 833,06
	Dk-2	600. Salgai erosketak 472. O.P. jasandako BEZ 400.03 Hornitzailea	1.652,89 347,11	2.000,00
	Dk-3	300. Salgaiak 610. Salgai izakinen aldaketa	1.652,89	1.652,89

**Balantzeko saldoen egiaztapena:**

	400. Hornitzaileak	300. Salgaiak
Liburuetako saldoa 202x/12/31n	(36.350,00)	29.500,00
<u>Doikuntzak</u>	<u>2.800,00</u>	<u>1.652,89</u>
Saldo doituia	(33.550,00)	31.152,89
<b><u>Saldoa auditorearen iritziz</u></b>	<b><u>(33.550,00)</u></b>	<b><u>31.152,89</u></b>
Diferentzia	0,00	0,00

**ONDORIOAK:** Hornitzaileen baieztapen (zirkularizazio) agirien azterketa eta inbentario fisikoa kontuan hartuta, auditoreak egiaztatu du 202x/12/31n Hornitzaileen saldoak 33.550,00€ izan behar duela eta Salgaiak 31.152,89€.

Enpresak proposatutako doikuntza idazpenak burutuz gero, auditoria-txostenean ez du salbuespenik aipatuko.

#### 4.9.ARIKETA OSOA

KA2,S.A. enpresaren 202xko Urteko Kontuak ikuskatzeko izendatu zaituzte. Bere jarduera hondartzarako aulki eta etzaulkien salerosketa da. Ikuskaritza egin ahal izateko enpresak ondorengo informazioa aurkeztu du, €tan:

<b>AKTIBOA</b>	<b>202x</b>	<b>OG eta PASIBOA</b>	<b>202x</b>
<b>AKTIBO EZ KORRONTEA</b>	<b>92.250</b>	<b>ONDARE GARBIA</b>	<b>166.500</b>
Ibilgetu Materiala	92.250	Kapitala	150.000
		Erreserbak	1.500
<b>AKTIBO KORRONTEA</b>	<b>214.608</b>	Ekitaldiko Emaidza	15.000
<b>IZAKINAK</b>	<b>119.000</b>	<b>PASIBO EZ-KORRONTEA</b>	<b>84.858</b>
Salgaiak	117.300	Epe luzeko mailegua	84.858
Hornitzaileei aurrerakina	1.700		
<b>MERKATARITZA ZORDUN</b>	<b>36.750</b>	<b>PASIBO KORRONTEA</b>	<b>55.500</b>
Bezeroak	36.750	<b>MERKATARITZA HARTZEKODUN</b>	<b>55.500</b>
<b>DIRUZAINZTA ETA BESTELAKOAK</b>	<b>58.858</b>	Hornitzaileak	52.500
Bankua	57.060	O.P. Hartzekoduna	2.250
Kutxa	1.798	Bezeroen aurrerakina	750
<b>GUZTIRA AKTIBOA</b>	<b>306.858</b>	<b>GUZTIRA OG eta PASIBOA</b>	<b>306.858</b>

#### DIRUZAINZTA ARLOA:

202x/12/31ko Egoera Balantzean Kutxak duen saldoa 1.798 € da:

- (570) Kutxa, euroak = 1.298 €
- (571) Kutxa, atzerri-moneta = 500 €

Auditoreak kontaketa behatu du 202x+1eko urtarrilaren 4an, ondorengo informazioa jasoz:

<b>KONTZEPTUA</b>	
Billeteak eta txaponak (euroak)	1.325,00€
Billeteak eta txaponak (atzerri moneta, 1 oharra)	500,00€
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.858,00€</b>

Oharra: Auditoreak egiaztatu du kutxan 650\$ daudela. Dolarrak kobratu dituenean truke-tasa 1€ = 1,3\$ zen. Ekitaldi itxieran: 1€ = 1,1\$.

Enpresaren iritziz, itxieran truke-tasa berriarekin sortzen diferentziak ez dira galdu-irabazietan jaso behar, ez baitira sortutako edo gauzaturata kontsideratzen, KPO-ko 11. Balorazio irizpideak dioenaren kontra.

202xko abenduaren 31tik 202x+1ko urtarrilaren 4 arte enpresak diruzaintza bidez egindako eragiketa bakarra urtarrilaren 2ko garraio gastuaren faktura eskudiruz ordaintzea da, 27€ (BEZ barne).

#### BEZEROEN ARLOA

Ikuskariak zirkularizazioa bezero garrantzitsuenei egiten die:

- ESKI bezeroarekin enpresak 7.200€ko saldo zorduna kontabilizatuta du. ESKIk zenbateko hau zuzena ez dela eta saldoa 5.506 eurokoa dela erantzun du. Diferentzia honen arrazoia hurrengoa da: abenduaren 28ko datarekin ESKIk 40 aulki itzuli zituen epez kanpo heldu zirelako eta beraz Gabonetako salmenta kanpainen saltzerik ez zuelako. KA2, S.A.k atzerapenaren erantzule agertu zen eta 40 aulki horien itzulpenaz informatu zitzaiola onartu zuen abenduaren 28an. Auditoreak egiaztatu du aulki horiek enpresaren biltegirara 202x+1/01/03an heldu direla.

- KALATXO bezeroak 4.300€ko saldo zorduna du. KA2 enpresak adierazi duenez, egoera finantzario txarragatik ordaindegabe geratzeko arrisku handia duena.

**IZAKINEN ARLOA:**

Izakinen arloari buruz enpresak ondorengo informazioa aurkeztu du:

SALGAIAK	Unitateak	Kostua	Zenbatekoa
Etzaulkiak	800	120	96.000
Aulkiak	710	30	21.300
<b>GUZTIRA</b>			<b>117.300</b>

Inbentarioa abenduaren 31n burutu zen laneguna bukatzean. Ikuskaria kontaketa fisikoa egin bitartean bertan egon zen eta aukeratutako laginei buruz ondorengo oharrak hartu zituen:

- Etzaulkiak:

PRODUKTUA	ENPRESA	AUDITOREA
Etzaulkiak (REF23234)	35 u.f.	25 u.f.
Etzaulkiak (REF23715)	30 u.f.	32 u.f.
Etzaulkiak (REF23325)	10 u.f.	10 u.f.

- Aulkiak: Auditorea biltegiara joan zenean txoko batean zeuden 10 aulkiak hezetasun arazoengatik guztiz hondatuta zeudela ikusi zuen.

Enpresak bukaerako izakinen kostua balioesteko batez besteko prezio haztatua erabili du.

- Etzaulkiak: Ikuskariak lozakuen kostua egiaztatzeko ekitaldian egondako biltegiko mugimenduei buruzko informazioa lortu du biltegiko arduradunagatik. Auditoreak ez du desadostasunik adierazi 120,00 €/unitateko kostu prezioarekin.
- Aulkiak: KA2 enpresa 202x ekitaldian hasi da aulkien salerosketen jarduerarekin. Auditoreak konprobatu du biltegian dauden aulki guztiak 202x/10/01ean burututako erosketa bakar batean eskuratu zizkiola ESERI hornitzaileari. Erositako zenbait aulki jadanik salduta daude. Auditoreak kostua konprobatzeko faktura eskatu du eta ondorengo informazioa jaso du: 800 unitateko aulkien erosketa 32€/u prezioan. Fakturan ondorengo deskontuak eman dira: promozio batengatik 1.000€ko beherapena eta erosketa bolumenagatik 0,5 €/unitateko. Garraio gastuak 200 € dira eroslearen kargu.

Eragiketean dagokion ekitaldian behar bezala kontabilizatuta dauden egiaztatzeko, ikuskariak lozakuen **salgaien salmenten** azken eragiketak egiaztatu zituen ondorengo informazioa lortuz:

Prod.	Irizpidea	Irteera data	Helmuga data	Kont. data	Un.	Salmta prezioa	Zenb.
Etzaulkiak	Helmuga	202x/12/23	202x+1/01/04	202x+1/01/15	10	140	1.400 €
Etzaulkiak	Jatorria	202x+1/01/10	202x+1/01/11	202x+1/01/10	75	140	10.000 €
Etzaulkiak	Helmuga	202x/12/26	202x/12/29	202x+1/01/04	15	140	2.010 €
Etzaulkiak	Helmuga	202x/12/26	202x+1/01/03	202x/12/26	20	140	2.800 €

Azkenik, enpresaren iritziz, izakinen balio bihurtu garbia bere eskuratze prezioa edo produkzio kostua baino txikiagoa denean, ez dira balioztatze zuzenketak egiten. Alegia, salmenta gauzatu arte ez da balio-galeren aurreikuspenik egingo. Ondorioz, ez du kontuan hartu etzaulkien merkatu balioa ekitaldi itxieran 115€/unitateko dela.

**MEMORIA:**

KA2 enpresaren Memoriako informazio hau ere eskuratu duzu, esanguratsua kontsideratzen dena.

## 2. oharra: URTEKO KONTUAK AURKEZTEKO OINARRIAK

## 2.1. Irudi fidela

202xko ekitaldiko Urteko Kontuak, honekin batera doazenak, Administrazio Organoak formulatu ditu.

Sozietateak bere egoera finantzarioak landu ditu, funtzionamenduan dagoen enpresaren printzipioaren mende, kontuan hartuta COVID-19aren egungo egoera eta egoera horrek ekonomian oro har eduki ditzakeen ondorioak, eta ez dago arriskurik jardunean jarraitzeko, memoria honetako 22. oharrean zehazten den moduan.

## 22. oharra: ONDORENGO GERTAERAK

202x+1ko martxoaren 14an, COVID-19ak eragindako osasun krisia kudeatzeko alarma egoera deklaratzeko martxoaren 14an emandako 463/2020 Errege Dekretua argitaratu da. Ondoren, 202x+1ko martxoaren 18an, COVID-19aren ondorio ekonomiko eta sozialari aurre egiteko urgentziatzeko ezohiko neurriak ezartzeko martxoaren 17an emandako 8/2020 Errege Lege-Dekretua argitaratu da, hasteko hilabete bateko indarraldiarekin eta enpresa jarduerari eragiten dion hainbat xedapenekin.

Bai Errege Dekretu batek bai besteak azken egunetan koronabirusak edo COVID-19ak maila globalean zein munduan sortu duen osasun larrialdiaren ondorioz eman dira. Gaur egun eta arau bien aplikatzearen eta betetzearen ondorioz, pertsonen etxeko konfinamendua, mugimenduen askatasuna eta beste hainbat egoera dekretatu dira.

Alarma egoera dekretatu zenetik, egoera horrek eragin nabarmena eduki du Konpainiaren emaitzetan. Konfinamendu arau zorrotzek gure bezeroen eskaria %52raino murriztu dute 202x+1ko apirilean. Ondoren, eskaera leheneratzen joan da arinki, eta ez dakigu seguru noiz bueltatu ahal izango den normaltasunera.

Eskaeraren jaitsiera zakar hori arintzeko, sozietateak bere produktuen eskaintza doitu du, beti urruntze sozialari lotuta emandako agindu eta gomendioak beteta. Honela online salmenta abian jarri da.

Krisiaren beraren bilakaerak eta gure sektorean aplikatu beharreko arauetan egon diren aldaketek zaildu egiten dute COVID-19aren krisiak 202x+1ko kontuetan eduki dezakeen inpaktua kuantifikatzea; halere, kontuan izanda egungo egoera eta egindako aurreikuspenak, kalkulatzeko dugu 20.000 euro inguruko inpaktua izan daitekeela. 202x+2ean, inpaktua nabarmen txikiagoa litzateke, eta espero da ekitaldi horren amaieran krisi aurreko egoerara bueltatzea.

**ESKATZEN DA:**

- 1- Ikuskaritza probak egitea eta auditoreak aztertu dituen arloetako saldoak arrazoigarriak izateko beharrezkoak diren doikuntza eta birsailkapenak proposatzea. Kontuan izan, sumatutako errakuntza eta irregulartasun guzti-guztiak esanguratsuak direla.
- 2- Ariketan zehar egindako idazpen kontableen eta proben azalpena. Oharra: Eragiketen BEZ %21 da.
- 3- Kutxa, Bezeroak eta Izakinen arloetako 202x/12/31ko amaierako saldoak.

**EBAZPENA:**

EBAZPENA: 202x/12/31ko KA2, S.A. enpresaren urteko kontuen ikuskaritza.

## DIRUZAINNTZA, KUTXA

Helburua: 202x/12/31ko balantzeko saldoaren egiaztapena.

Ikuskaritzako Proba: Kontaketa

(Arkeoa)

Arkeoaren egiaztapena 202x+1 urtarrilaren 4an.

	KONTZEPTUA	ENPRESA	AUDITOREA	DOIKUNTZA		AZALPENAK
570	Billeteak eta txanponak (euroak)	1.325,00	1.325,00	-	-	-
571	Billeteak eta txanponak (dolarrak)	500,00	590,91	90,91	DK-1	650\$ /1,1= 590,909 €. Kanbio diferentzia positiboak
	<b>GUZTIRA</b>	<b>1.858,00</b>	<b>1.915,91</b>	<b>90,91</b>		
	Batura zuzena	1.825,00				570.Kutxa,€ 571.Kutxa,\$
					202x/12/31ko balantzeko saldoa	1.298,00 500,00 1.798,00
	Abenduaren 31ko saldoa lortu:	570.Kutxa,€	571.Kutxa,\$		+/- doik	90,91
	Arkeoko saldoa (01/04)	1.325,00	590,91	1.915,91		
	- sarrerak (KOBROAK)					
	+ irteerak (ORDAINKETAK)	27,00				
	<b>Auditorearen saldoa</b>	<b>1.352,00</b>	<b>590,91</b>	<b>1.942,91</b>		
					Saldo doitua	1.298,00 590,91 1.888,91
					Auditorearen saldoa	1.352,00 590,91 1.942,91
					Diferentzia	54,00 0,00
						<b>DK-2</b>

  

Zkia.		ZOR	HARTZEK
DK-1	(571) Kutxa, atzerri moneta	90,91	
	(768) Kanbio diferentzia positiboak		90,91
DK-2	(570) Kutxa, euroak	54,00	
	(759) Kudeaketako beste sarrerak		54,00

**KOBRATZEKO ESKUBIDEEN ARLOA: BEZEROAK**

Helburua: 202x/12/31ko balantzeko saldoaren egiaztapena.

Ikuskaritzako proba: **Zirkularizazioko erantzunen azterketa.**

BEZEROA	ENPRESA	AUDITOREA	DOIKUNTZA		AZALPENAK
Eroski	7.200,00	5.506,00	-1.694,00	DK-3/4	Salmenten itzulketa; +40 aulki * k
Kalatxo	4.300,00	-	-4.300,00	DK-5/6	KZB eta balio narriadura
BESTEAK	25.250,00	25.250,00			
GUZTIRA	36.750,00	30.756,00	-14.260,00		

202x/12/31ko balantzeko saldoa	36.750,00
+/- doik	-1.694,00
	-4.300,00

Bezeroen saldo doitua **30.756,00** Auditorearen saldoa berdina bezero guztiak aztertu ez direlako

Zkia.	Auditoreak proposaturiko idazpenak:	ZOR	HARTZEK
DK-3	(708) Salmenten itzulk eta antzek. eragik.	1.400,00	
	(477) OP jasanarazitako BEZ	294,00	
	(430) Bezeroak		1.694,00
DK-4	(300) Salgai Izakinak	1.220,00	
	(610) Salgai Izakinen Aldaketa		1.220,00
DK-5	(436) Kobrantza Zalantzarriko Bezero	4.300,00	
	(430) Bezeroak		4.300,00
DK-6	(694) Merkataritza kredituen narriadura galerak	4.300,00	
	(490) Merkataritza kredituen balio narriadura		4.300,00

Kostua kalkulatu behar!  $40 * 30,5 = 1.220$

**IZAKINEN ARLOA**

Helburua: 202x/12/31ko balantzeko saldoaren egiaztatpena.

Ikuskaritzako froga: **INBENTARIOA**

Izakinak	Enpresa			Auditorea				
	Unit	K	G	Unit	G	G	doikuntzak	
Etzaulkiak	800	120	96.000		800-10+2=792	120	95.040,00	-960,00
Aulkiak	710	30	21.300		710-10=700 (+40)	30,5 (1)	21.350,00	50,00
<b>GUZTIRA</b>			117.300				116.390,00	-910,00

DK-7

Zkia.	ZOR	HARTZEK
DK-7 (300) Salgaiak		910,00
(610) Salgai Izakinen Aldaketa	910,00	

(1) <b>Aulkien Kostua:</b>	800*32	25.600
Beharpena	-1000	-1000
Bolumena dktu	-800*0,5	-400
Garraio gastuak	200	<u>200</u>
GUZTIRA		24.400
<b>Unit kostua</b>	24.400/800	<b>30,5</b>



## Ikuskaritzako proba: SALMENTEN BANAKETA

					Doikuntzak	
Salmentak	Irizpidea	irteera	helmuga	Kontabilizatu	Salmentak	Inbentarioa
Etzaulkiak	H → 202x+1	202x	202x+1	202x+1	-	10
Etzaulkiak	J → 202x+1	202x+1	202x+1	202x+1 EA	-	-
Etzaulkiak	H → 202x	202x	202x	202x+1	+2100	-
Etzaulkiak	H → 202x+1	202x	202x+1	202x	-2800	20
GUZTIRA					-700,00 DK-8	30 DK-9

30\*120      3600

Zkia.	Auditoreak proposaturiko idazpenak	ZOR	HARTZEK
DK-8	(700) Salgaien salmentak	700,00	
	(477) OP jasanarazitako BEZ	147,00	
	(430) Bezeroak		847,00
DK-9	(300) Salgaiak	3.600,00	
	(610) Salgai Izakinen Aldaketa		3.600,00

## Ikuskaritzako proba: Produktu bukatuen BALIO-NARRIADURA

Produktua	unitate	Kostua	Salm. pr.	Salm gastuak	Salm. Pr. Garbia		Balio-narriadura
Etzaulkiak	792+30=822	120,00	115,00		115,00	-5,00	bai
Aulkiak	740	30,5					ez

Balio-narriadura = 822 \*(115 - 120)

4.110,00

DK-10

Enpresaren balio-narriadura

-

Zkia.		ZOR	HARTZEK
DK-10	(693) Salgaien narriadura galerak	4.110,00	
	(390) Salgaien balio narriadura		4.110,00

## AMAIERAKO SALDOAK

	KUTXA	BEZEROAK	IZAKINAK
<b>ENPRESAREN SALDOA</b>	1.798	36.750	117.300
Diruzaintza arloko doikuntzak (1),(2)	+ 90,91 +54		
Bezeroen arloko doikuntzak (3),(5)		-1,694 -4.300	+1.220
Izakinen arloko doikuntzak (7),(8),(9)		-847	-910 +3.600
<b>AUDITOREAREN SALDOA</b>	<b>1.942,91</b>	<b>29.909,00</b>	<b>121.210,00</b>